



**ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIAREN
EREDUA
(Prozedura irekia)**

AURKIBIDEA

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK.

1. Kontratuaren xedea.
2. Kontratatzeke beharraren justifikazioa.
3. Kontratu-dokumentuak.
4. Araubide juridikoa.
5. Kontratuaren alderdiak.
6. Kontratuaren balio zenbatetsia eta kontratuaren lizitazio-aurrekontua.
7. Kontratuaren prezioa.
8. Aurrekontu-kreditua egotea.
9. Ordainketa-araubidea.
10. Bermeak.
11. Kontratuaren exekuzio-epea eta iraupena.
12. Izapideak, eta adjudikatzeko prozedura eta modua.
13. Lizitazio eta kontratazio elektronikorako sistema.
14. Lizitazioa publiko egitea.
15. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, publikotasuna, informazioa eta konfidentzialtasuna.

II.- KONTRATAZIO-PROZEDURAN PARTE HARTZEA.

- 16.- Parte hartzeko arau orokorrak.
- 17.- Proposamenak aurkeztea: aurkezpenaren lekua eta modua.
 - 17.1. Nahitaezko dokumentazioa.

III.- DOKUMENTAZIOA AZTERTZEA ETA KONTRATAZIO-MAHAIAREN JARDUNA.

- 18.- Kontratazio-mahaia.
 - 18.1 Kontratazio-mahaiaren aurreko jarduketak.
 - 18.2 Kontratazio-mahaiaren jarduna.
 - 18.3 Kontratazio-mahaiaren egintzen emaitzak publiko egitea.
- 19.- Eskaintza anormalki baxuak.
- 20.- Betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea, adjudikazio-proposamena egin aurretik.

IV.- ESKAINTZAK BALORATZEA ETA SAILKATZEA, KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA.

21. Eskaintzak sailkatzea.
22. Aurkeztu behar den dokumentazioa.
23. Adjudikazioa.



24. Kontratua perfektionatzea.
25. Kontratua formalizatzea.
26. Formalizatzeko epea.
27. Kontratua ez egiteko erabakia eta prozeduran atzera egitea.
28. Ez formalizatzearen ondorioak.
29. Aseguruak.
30. Konfidentzialtasuna.

V.- KONTRATUA EXEKUTATZEA.

31. Lanak hastea.
32. Kontratuaren arduraduna.
33. Kontratua betetzea.
34. Kontratistaren zigorrak ez-betetzeagatik.
35. Prezioa ordaintzea.
36. Faktura elektronikoa.
37. Prezioak berrikustea.
38. Lan- eta gizarte-betebeharrak.
39. Baliabide materialak eta giza baliabideak.
40. Kontratua exekutzeko hizkuntzaren arloko baldintzak.
41. Kontratua exekutzeko baldintza bereziak.
42. Kontratistaren erantzukizuna, kontratua gauzatzean hirugarrenei eragindako kalteengatik.
43. Kontratua aldatzea.
44. Kontratua etetea.
45. Enpresa kontratistaren ondorengotza, kontratua exekutatu bitartean.
46. Konfidentzialtasuna.
47. Datu pertsonalen tratamendua.
48. Lanen jabetza.

VI. KONTRATUA AZKENTZEA.

49. Kontratua betetzea.
50. Kontraua likidazioa.
51. Akatsak eta hutsak berme-epan.
52. Bermeak itzultzea eta ezereztea.
53. Kontratua suntsiaraztea.
54. Kontratuak lagatzea
55. Azpikontratatzea.

VII. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK, BALIABIDEAK ETA DEUSEZTASUN-ARAZOA.

56. Administrazioaren prerrogatibak.
57. Kontratazio-arloko errekurtsio berezia.
58. Berraztertze errekurtsioa.
59. Jurisdikzio eskuduna.



I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Baldintza-agiri honetako karatularen 1. puntuan jasota dagoen prestazioa da kontratuaren xedea.

Baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoan agirian ezarritako baldintzak bete beharko ditu prestazioak, kontratuaren zati baitira.

Baldintza-agiriaren karatulan onartzen baldin bada, lizitatzailleek betekizunen eta baldintzen aldaketak gehitu ahalko dituzte, puntu horretan ezarri den gehienezko kopuruari jarraituta.

Kontratua sortatan zatitzen baldin bada, sorta bakoitzaren xedea unitate funtzional bat izango da, eta bereizita egin ahalko da. Karatulako 1. puntuan ere aipatuta dago unitate hori. Sorta bakoitza bereizita adjudikatu ahalko da.

2.- KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA.

Karatulako 1.2. puntuan eta baldintza teknikoan agirian, Haurreskolak Partzuergoak agiri honetan aipatzen den kontratua egiteko izan dituen arrazoiak jaso dira.

3.- KONTRATU-DOKUMENTUAK.

Karatulan adierazten direnekin batera, honako hauek ere kontratu-dokumentuak dira:

- a) Baldintza administratibo zehatzen agiria.
- b) Baldintza teknikoan agiria.
- c) Kontratua formalizatzeko dokumentua.

Baldintza administratibo zehatzen agirian ezarritakoaren eta baldintza teknikoan agirian ezarritakoaren artean desadostasunak sortuz gero, baldintza-agiri honetan jasotakoa nagusituko da, gai eta zehaztapen teknikoak buruzkoak izan ezik.

4.- ARAUBIDE JURIDIKOA.

3.1.- Kontratua administratiboa da, eta, manu arautzaileak honela lehenetsi dira:

- a) Baldintza administratibo zehatzen agirian jasotako klausulak, karatulako zehaztapenen arabera (karatula baldintza-agiriaren osagaia delako).
- b) Baldintza tekniko zehatzen agiriko klausulak.
- c) 9/2017 Legea, azaroaren 9koa («SPKL», aurrerantzean). Honen bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/18 Zuzentarauaren transposizioa egiten da.
- d) Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea hein batean garatzen duena.
- e) 1098/2001 Errege dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen kontratuei buruzko Legearen Araudi Nagusia onartzen duena.
- f) 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa.
- g) 31/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Uraren, energiaren, garraioen eta posta zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzkoa.

- h) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Zuzentaraua, 2014ko otsailaren 26koa, Kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.
- i) 3/2016 Legea, apirilaren 7koa, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa.
- j) 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa.
- k) 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoa.
- l) Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako.
- m) 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrerako.
- n) 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera arautzen duena.
- o) Estatuko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, erkidego horren esparruan aplikatzekoa bada.
- p) Horien osagarri izango dira, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak ere bai, eta, horrelakorik ez badago, zuzenbide pribatukoak.

3.2.-Enpresaburuak, nahiz eta ez ezagutu kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako dokumentuak edo Administrazioak onartutako jarraibide, baldintza-agiri edo era guztietako arauak, eta horiek guztiak hitzartutakoa exekutatzeko aplikatu beharrekoak badira, guztiak betetzeko betebeharra izaten jarraituko du, ez da horregatik betebeharrak horretatik salbuetsita egongo.

5.- KONTRATUAREN ALDERDIAK.

A) Kontratazio-organoa.

- Kontratatzeko eskumenak.- Kontratazio-organoa baldintza-agiriaren karatulan adierazita egongo da.
- Kontratazailearen profila.- Baldintza-agiri honen karatulan ezarritakoa. Erakundearen webgunetik eskuragarri egongo da, eta bertan jasoko dira kontratazio-organoaren kontratu-jarduerei buruzko datuak eta argibideak ere bai.

B) Kontratista.

- Jarduteko gaitasuna.- Espainiako estatuko edo atzerriko pertsona fisikoek edo juridikoek kontratatu ahal izango dute HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREkin, betiere kontratatzeko debekuren batek eragiten ez badie, eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatu badituzte, edo, SPKL-ak hala eskatzen duenean, sailkatuta badaude. Enpresaburuek, halaber, eduki beharko dute kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa emateko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza.
 - a) Pertsona juridikoak: haiei ez zaie kontraturik adjudikatuko, estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-esparrua kontratuaren prestazioarekin bat etorri ezean.
 - b) Europar Batasuneko estatuetako nazionalak diren enpresaburu ez-espainiarrak: haiek kontratuak egin ahal izango dituzte, egoitza ezarri duten estatuko legeetan ezarrita baldin badago prestazio hori egiteko baimena dutela.
 - c) Europar Batasuneko estatuetako nazionalak diren enpresaburu ez-espainiarrak: haiek kontratuak egin ahal izango dituzte, egoitza ezarri duten estatuko legeetan ezarrita baldin badago prestazio hori egiteko baimena dutela.
 - d) Enpresa-elkarteak: HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREkin kontratuak egin ahal izango dituzte asmo horrekin aldi baterako elkartzen diren enpresaburuek. Enpresaburuak



solidaritategi behartuko dira, eta ez dute eskritura publikorik egin beharko, harik eta kontratua beren alde adjudikatu arte. Halaber, enpresa-elkartearen izenean ordezkari edo ahalordedun bakar bat izendatu behar dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko aginpide nahikoarekin, harik eta kontratua azkendu arte, nahiz eta enpresek, garrantzi handiko kopuruak kobratu eta ordaintzeko, ahalmen mankomunatuak eman ahal izango dituzten.

Aldi baterako enpresa-elkarte horiek kontratua azkendu arte iraungo dute.

6.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA KONTRATUAREN LIZITAZIO-AURREKONTUA.

Adjudikazioaren publikotasuna eta prozedura zehazte aldera, kontratu honen balio zenbatetsia, HAURRESKOLAK PARTZUERGOAK jasango duena, karatulan adierazitakoa da.

Kontratu honetan HAURRESKOLAK PARTZUERGOAK gehienez ere egingo duen gastu-aurrekontua karatulan ezarritakoa da.

Eskaintzei lotutako lizitazio mota karatulan adierazita dago, eta horren arabera zehaztuko da zenbatekoa gainditzen duten eskaintzen bazterketa. Hobekuntza beti beherantz egingo da, eta zenbateko zehatza kontsignatuko da.

7.- KONTRATUAREN PREZIOA.

Kontratuaren prezioa izango da adjudikaziotik ateratzen dena. Ezingo da izan Administrazioak ezarritako aurrekontua baino handiagoa.

Kontratuaren prezioan honako hauek guztiak sartzen dira: zerga, tasa eta kanon aplikagarri guztiak eta prestazioak eragiten dituen gainerako gastu guztiak, edo adjudikaziodunak baldintza-agiri honetan ezarritakoa bete beharrez egiten dituenak. Prezioa adjudikazio-ebazpenean zehazten diren urtekoen kargura ordainduko da.

Prezioa zehazteko, prestazioaren osagaien prezio unitarioak edo prestazioan ematen edo exekutatzeko diren unitateen prezio unitarioak erabiltzen baldin badira, HAURRESKOLAK PARTZUERGOAK eskubidea dauka, kontratuaren urteko gastuaren % 20 gutxienez aldatzeko, gastua doitzeko aurrekontuaren aldaketa egokia onartuta.

8.- AURREKONTU-KREDITUA EGOTEA.

Kontratu honen arabera HAURRESKOLAK PARTZUERGOAK bete beharko dituen betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko behar beste kreditu dago. Beraren aurrekontu-izendapena baldintza-agiri honen karatulan ezarritakoa izango da.

Aurretiko izapideak egiteko kontratazio-espedituetan, adjudikazioa kreditu egoki eta nahikoa egoteko eten-baldintzaren mende egongo da, dagokion ekitaldian.

9.- ORDAINKETA – ARAUBIDEA.

Kontratuaren prezioa dagokion faktura aurkeztu eta onartzen denean ordainduko da, Klausula-orri hauen Karatulan zehaztutako moduan.

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta dagozkion fakturretan jasota gera dadin, adierazten da kontabilitate publikoaren arloan eskumenak dituen administrazio-



organoa Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa dela, kontratazio-organoa Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordea dela, eta unitate hartzailea Haurreskolak Partzuergoa dela.

10.-BERMEAK.

Kontratuaren esleipendunak, hartutako betebeharrak betetzen direla bermatzeko, behin betiko berme bat eratu beharko du, esleipenaren zenbatekoaren% 5ekoa, BEZa kenduta.

Berme hori eratzeko epea 17. klausulan aipatutako errekerimenduan adierazitakoa izango da, eta SPKLren 108. artikuluan ezarritako edozein bitartekotan eratu ahal izango da. Eraketa bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoen bidez egiaztatu ahal izango da. Lizitzaileari egotz dakizkikeen arrazoiengatik betekizun hori betetzen ez bada, Administrazioak ez du bere aldeko esleipena egingo.

Bermea, osorik edo zati batean, SPKLren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko edo ezereztuko da, berme-epea amaitu eta esleipendunak kontratu-betebehar guztiak bete ondoren.

11.- KONTRATUAREN EXEKUZIO-EPEA ETA IRAUPENA.

Kontratuaren exekuzio-epea edo gehienezko iraupena baldintza-agiri honen karatulan ezarritakoa izango da.

Kontratista berandutza-egoeran dagoela ulertuko da ezarritako epea igarotakoan, eta horretarako ez da beharrezkoa izango Haurreskolak Partzuergoak alde aurretik agindurik ematea.

Kontratua luzatu ahalko da prestazioak ematen jarraitzeko, baldin eta karatulan ezarrita badago hori egin ahal dela. Kontratazio-organoak erabakiko du kontratua luzatzea ala ez. Luzatzea erabakitzen badu, enpresak ezinbestean onartu beharko du, karatulan kontrakoa ezarri ezean. Gainera, ezin da luzapenik egin bi alderdien isilbidezko adostasunaren bidez. Luzapen hori edo horiek ezingo dira, ez banaka harturik, ez batera, hasieran zehaztutakoa baino denbora gehiagorako erabaki.

Kontratua edozein arrazoi normal edo anormalengatik azkentzen baldin bada, zerbitzua ematen jarraitu ahal izateko, kontratazio-organoak kontratua luzatzea erabaki ahalko du, kontratu berria adjudikatu arte, eta, edonola ere, luzapenaren epea gehienez ere sei hilabetekoa izango da.

12.- IZAPIDEAK, ETA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA.

12.1.-Kontratazioaren espedientea izapidetze arruntekoa edo presako izapidetzekoa izango da, karatulako 21. puntuan adierazitakoaren arabera.

12.2.-Kontratu hau adjudikazioa prozedura irekiaren bidez eramango da aurrera.

12.3.-Adjudikazioan eskaintzak ebaluatzeko irizpide bakartzat hartuko da preziorik baxuena; edo eskaintzak ebaluatzeko hainbat irizpide aplikatuko dira, karatulan ezarritakoaren arabera.

13.- LIZITAZIO ETA KONTRATAZIO ELEKTRONIKOAREN SISTEMA.

Baldintza-agiriaren karatulako 22. puntuan baimendutako kasuetan soilik erabil daiteke sistema elektronikoa eskaintzak aurkezteko, dokumentuak bidali eta jasotzeko eta kontratuak sinatzeko.



Izapideak telematikoki egin nahi dituztenek edo jakinarazpen elektronikoak jaso nahi dituztenek ziurtagiri elektroniko aitortua eduki behar dute, Ogasun eta Herri Administrazio Sailburuaren 2004ko abuztuaren 16ko Aginduan ezarritakoaren arabera (EHAA, 164. zk., 2004ko urriaren 27koa); horrez gain, bertako III. eranskinean ezarritako betekizun guztiak bete behar dituzte.

Sistema erabiltzeko modua aipatutako II. eranskinean zehaztu da, eta onartutako ziurtagirien zerrenda atari honetan agertuko da: www.contratacion.info edo www.contratacion.euskadi.eus.

Sistema berariaz onartu behar da. Onarpenak berekin ekarriko du enpresak baimentzea beraren datuak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean erabil ditzaten, datuok lizitazio elektroniko horietarako egiaztatzeko xede bakarraz.

14.- LIZITAZIOA PUBLIKO EGITEA.

Lizitazioaren iragarkia Kontratatzaile Profilan argitaratuko da, SPKL-aren 19. artikulutik 23. artikulura ezarritako erregulazio harmonizatuko kontratua izan ezik. Hala denean, lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAOn) argitaratuko da, SPKL-aren 156. artikuluan ezarritakoaren arabera. Estatuko Administrazio Orokorrek edota honi lotetsitako erakundeek ospatutako kontratutean, lizitazio iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean (EAOn) ere argitaratuko da.

Proposamenak aurkezteko epea honela zenbatuko da:

- Lizitazioa Kontratatzaile Profilan soilik argitaratzen denean (EBAOn argitaratu behar ez delako), proposamenak aurkezteko epea karatulan ezarritakoa izango da, prozedura irekiak direnean; eta gutxienez hamabost egun naturalekoa izango da (zortzi egunekoa, presakotzat hartzen denean). Lizitazioa argitaratzen denetik zenbatuko da epea.
- Lizitazioa EBAOn eta BOEn argitaratu behar denean, baldintza-agiriaren karatulan eta lizitazio-iragarkietan ezarritako epea bete beharko da; eta, gutxienez, hogeita hamar egun naturalekoa izango da, kontratuaren iragarpena EBAOra bidaltzen den egunetik zenbatuta.
- Epearen azken eguna larunbata, igandea edo Euskal Autonomia Erkidegoko jaieguna baldin bada, lehen lanegunera arte luzatu dela joko da.

Edonola ere, lizitazioa HAURRESKOLAK PARTZUERGOKo kontratatzailearen profilean argitaratuko da, honako webgune honetan: www.haurreskolak.eus. HAURRESKOLAK PARTZUERGOak duen kontratatzailearen profilean kontratuaren lizitazioaren deialdiari buruzko informazioa emango da, baldintza administratibo zehatzen agiria, baldintza teknikoaren agiria eta dokumentazio osagarria barne hartuta, hala dagokionean.

Lizitatuzaileek baldintza-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruz eskatzen duten informazio gehigarria proposamenak jasotzeko muga-eguna baino sei egun lehenago emango da, baldin eta proposamenak jasotzeko epea amaitu baino gutxienez 12 egun lehenago egin bada eskaera.

SPKLren 136.2 eta 3. artikuluetan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria ezin izan bada adierazitako epeetan eman, eta eskaintzak tokian bertan egindako bisita baten ondoren edo pleguari erantsitako dokumentazioa in situ kontsultatu ondoren bakarrik egin badaitezke, eskaintzak jasotzeko epea hautagaiek egokitzen duten denboran luzatuko da, eragindako pertsonen eskaintzak formulatzeko beharrezko informazio guztiaren berri izan behar dute eta.



15.- PRINTZIOAK: BERDINTASUNA, GARDENTASUNA, PUBLIKOTASUNA, INFORMAZIOA ETA KONFIDENTZIALTASUNA.

Kontratazio-organoak berdintasunez tratatuko ditu lizitatzailleak, diskriminaziorik gabe, eta gardentasun-printzipioaren arabera jardungo du.

Kontratazio-organoek ezingo dute zabaldu enpresek isilpekotzat jotako informazioa, betiere, adjudikazioaren publikotasunari buruz eta lizitatzaillei eman beharreko informazioari buruz SPKL-an ezarritako xedapenen kalterik gabe. Isilpekoak izango dira, batez ere, sekretu teknikoak edo komertzialak eta eskaintzen isilpeko alderdiak. Kontratazio-organoek ezin izango dute zabaldu informazio hori, interesdunek baimena eman ezean.

II.- KONTRATAZIO-PROZEDURAN PARTE HARTZEA

16.- PARTE HARTZEKO ARAU OROKORRAK.

Kontratuaren xedea betetzeko proposamenak aurkeztu ahalko dituzte, aurrerantzean zehaztuta dagoen moduan, jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisikoek zein juridikoek, espainiarrak zein atzerriarrak izan; halaber, beste baldintza hauek bete beharko dituzte: kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala, edo, hala dagokionean, sailkapena egiaztatzea, helburuak, haien estatutu edo sorrera-arauen arabera, kontratuaren xedearekin zuzeneko zerikusia izatea, eta antolamenduari begira, kontratua behar bezala exekutatzeko baliabide materialak eta giza baliabideak edukitzea.

Kontratu honen zehaztasun teknikoak idazten parte hartu duten enpresek ezin izango dute lizitazioan parte hartu, parte hartze horrek lehia libreari oztupoak jartzen baldin badizkio edo gainerako enprekin alderatuta pribilegioak sortzen badira enpresa batzuentzat.

Batek proposamenak aurkezten baldin baditu, baldintza-agiri honen klausulak, karatulako zehaztapenak eta gainerako kontratu-dokumentu guztiak inolako baldintzarik gabe eta salbuespenik gabe onartu dituelako presuntzioa eragingo du, eta, orobat, erantzukizunpeko deklarazio hau egiten duelakoa: aurkeztutako datu guztiak egiazkoak direla eta prestazioa kontratatzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.

Lizitatzaille bakoitzak gehienez ere proposamen bat aurkeztu ahalko du, banaka zein aldi baterako enpresa-elkarteko kide izanik. Banakako lizitazioa egiten duenak ezin izango du bere proposamena enpresa-elkarte batek egindako proposamen batekin lotu. Arau horiek hautsiz gero, harpidetutako eskaera eta eskaintza guztiak baztertuko dira.

17.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA: AURKEZPENAREN LEKUA ETA MODUA.

Proposamenak Kontratazio Zuzendaritzako bulegoetan entregatu beharko dira (bulegoak karatulan zehaztuta daude) edo postaz bidali beharko dira, lizitazio-iragarkian horretarako ezarritako epean. HIRU gutun-azal itxita bidali beharko dira (A, B eta C gutun-azalak), eta baldintza-agiri honen karatulan ezarritako koadroa jasota identifikatu beharko dira.

A GUTUN-AZALA: ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA.

B GUTUN-AZALA: FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK.

C GUTUN-AZALA: FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.

Lizitatzailleak edo ordezkatzeko duen pertsonak nahitaez izenpetu beharko ditu gutun-azalak.



Proposamena postaz bidaltzen baldin badu, noiz bidali duen dioen eguna zein den egiaztatu beharko du postetxean bertan, eta kontratazio-organoari eskaintza posta bidez bidali duela jakinarazi beharko dio egun bereko telefaxeaz edo posta elektronikoko mezu bidez (formazioa@haurreskolak.eus).

Posta elektronikoko bidez iragartzen baldin badu, hori balioduna izateko, mezua bidali eta jaso izana, egunak eta komunikazioetako eduki osoa egiaztatu beharko dira. Horrez gain, hartzailea eta igortzailea era fidagarrian identifikatu beharko dira. Hala egiten denean, kopia inprimatu, erregistratu eta espedientean sartuko da.

Betekizun bi horiek bete ezean, dokumentazioa ez da onartuko, adierazitako epearen azken eguna eta ordua igaro ondoren jasotzen baldin bada. Hala ere, jarritako epea igaro eta hurrengo hamar egun naturalak iragan ostean ez bada proposamena jaso, orduan inola ere ez da onartua izango.

Dokumentu horiek fotokopia bidez aurkeztu ahalko dira, erantzukizunpeko deklarazioak izan ezik, horiek jatorrizkoak izan beharko baitira. Adjudikazioduna izateko proposamena beraren alde egiten bada, jatorrizko dokumentuak aurkeztu beharko ditu, kontrataziorako udal-bulegoak erka ditzan.

17.1 ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA.

"A" GUTUN-AZALA: ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA

Gutun-azal honek agiri hauek izango ditu:

1.- HELBIDE ELEKTRONIKO GAITUA.

Helbide elektronikoko gaitu bat izendatzea, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik, non kontratazio-espeditente honetatik eratorritako jakinarazpenak egingo diren.

2.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.

23. paragrafoan ezarritako administrazio-dokumentazioa hasieran aurkeztu ordez, erantzukizunpeko adierazpen hau aurkeztu beharko da.

Adierazpen horretan, lizitatuzaileak adieraziko du Administrazioarekin kontratuak egiteko lege ezarritako baldintzak betetzen dituela, bai eta baldintza-agiri honetan kontratua eskuratzeko ezarritako baldintzak ere. Deklarazioa bat etorriko da Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) formularioarekin. Formulario hori betetzeko, agiri honen I. eranskinean agertzen diren jarraibideak bete daitezke.

Loteka banatuz gero, kaudimen-betekizun desberdinekin, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da kaudimen-betekizun berberak aplikatzen zaizkion lote edo sorta-multzo bakoitzeko.

Hala ere, kontratazio-organoak edo -mahaiak, prozeduraren amaiera egokia bermatze aldera, eskatu ahal izango du, esleipena egin aurreko edozein unetan, lizitatuzaileek agiri honetan aipatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkez ditzatela, kontratuaren esleipendun izateko.

Erantzukizunpeko deklarazioari erantsi behar zaion dokumentazioa:

Ofaola Hiribidea, 29- Jaizkibel eraikina, I.- 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943-921750 Fax 943-120737



1.- Enpresaburuen elkarte bat eratzen bada, kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkezteaz gain, honako hau erantsiko da: ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN DOKUMENTUA (I.2 eranskinean agertzen den ereduaren arabera), honako hauek adierazita: elkartearen izenpetzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak, horietako bakoitzaren partaidetza-ehunekoa eta kontratua indarrean dagoen bitartean guztien ordezkaritza osoa izan behar duen pertsona Administrazioaren aurrean.

2.- SPKLren 75. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, lizitatuzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, eta, horrez gain, agiri hau erantsiko zaio: KAUDIMENA/SAILKAPENA INTEGRATZEKO ZIURTAGIRIA, bi erakundeek sinatua (I.3 eta I.4 eranskinetan ageri diren ereduaren arabera).

3.- Karatulan enpresa- edo lanbide-gaikuntza eskatzen bada: eskatutako enpresa- edo lanbide-gaikuntza EGIAZTATZEN DUEN AGIRIA.

3.- BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO ETA EXEKUZIO-BALDINTZA BEREZIAK BETETZEKO KONPROMISOAREN ADIERAZPENA.

Adierazpen horretan (IV. eranskineko ereduaren arabera), lizitatuzaileak konpromisoa hartzen du baldintza-agiri honetan adierazitako exekuzio-baldintza bereziak betetzeko eta kontratuaren exekuzioari bere ekoizpen-antolaketa atxikitzeko, bai eta eskaintzan adierazten diren baliabide materialak eta giza baliabideak ere.

4.- ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOEN KONFIDENTZIALTASUNA.

Lizitatuzaileak lizitaziorako emandako informazioen bat konfidentzialtzat izendatu nahi bada, VI. eranskina bete beharko du, baldin eta baldintza-agiri honen 36.1 atalean informazio hori jaso ez bada.

5.- ATZERRIKO ENPRESAK.

Aurreko puntuetan adierazitako agiriez gain, atzerriko enpresek deklarazio bat aurkeztu behar dute, esparru-akordiotik eta akordio horretatik eratorritako kontratuetatik zuzenean edo zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adierazteko, eta, hala badagokio, uko egiten diotela lizitatuzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari (VII. eranskineko ereduaren arabera).

"B" GUTUN-AZALA: FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatuzaileek beren eskaintzak baloratzeko eta haztatzeko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, eskaintzak baloratzeko formulak aplikatuz ebaluatu ezin diren eta karatulan ezarrita dauden irizpideei dagokienez.

Gutun-azal horretan ezin da inola ere sartu eskaintza ekonomikoa, ezta eskaintza ekonomikoari lotutako dokumentu garrantzitsurik edo formulak aplikatuz ebaluatu daitezkeen alderdirik ere.

"C" GUTUN-AZALA: FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU DAITEZKEEN ALDERDIEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Honako dokumentu hauek barne hartuko ditu:

Oraola Hiribidea, 29- Jaizkibel eraikina, I.- 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943-921750 Fax 943-120737



1. Eskaintza ekonomikoa: Baldintza administratibo zehatzen agiriko II. eranskinaren arabera proposamen ekonomikoa:

- Proposamen bakarra edukiko du, lizitatzailleak edo beraren ordezkariak idatzita. Proposamena baldintza-agiri honetako II. eranskinean jasotako ereduaren arabera izango da.
- Eskaintza ekonomikoan partida berezi batean adierazi behar da jasalarazi behar den BEZa.
- Eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa ezin izango da kontratuaren lizitazio-aurrekontua baino handiagoa izan.
- Ondorio guztietarako, kontzeptu guztiak –gastuak, tasak, edozein zerga-eremutako arielak eta kontratistaren etekin industrialak– eskaintzako prezioan jasota daudela joko da, BEZa izan ezik. BEZa partida berezi batean jasalaraziko da.
- Karatulan halaxe ezarrita baldin badago, gutun-azal horretan jasoko dira proposamen ekonomikoko ereduari dagozkion eranskinak.
- Ez dira onartuko honelako proposamenak:
 - Kontratazio-organoak ebazpena emateko ezinbesteko irizten dion zerbait jakitea eragozten duten kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo zirrimarrak dituztenak.
 - Aztertu eta onartutako dokumentazioarekin loturarik ez dutenak.
 - Gehieneko lizitazio mota gainditzen dutenak.
 - Proposamenaren zenbatekoan hutsegite nabarmena ageri dutenak.
 - Baldintza-agiri honetako II. eranskin gisa ageri den proposamen eredia nabarmen aldatzen dutenak.
 - Lizitatzailleak onartzen badu eskaintza bideraezina izatea ekartzen duen hutsa edo funts eza dagoela, eskaintza hori ez da onartuko.

Letretan adierazitako eskaintzaren eta zenbakietan adierazitakoaren artean desadostasunik egonez gero, letretan jasotakoa nagusituko da (salbuespen bakarra egingo da zenbateko horrek lizitazio mota gainditzen duenean), betiere, dokumentazioa aztertuta eta irizpide arrazionalerik baliatuta, kontratazio-mahaiak bestela erabaki ezean.

Eskaintza ekonomikoko kontuan egiten diren hutsak zuzendu behar dira.

Eskaintzak ez onartzea eragiten ez duten kontraesanak edo hutsak direnean, kontratazio-mahaiak irizpide arrazionalen arabera erabakia hartuko du, bai eta administrazioarentzat onuragarriena den erabakia ere.

- Lizitatzaille bakoitzak gehienez ere proposamen bat aurkeztu ahal izango du. Hala eta guztiz ere, karatulan baimentzen baldin bada, baimendutako soluzio-aldaerak jaso ahalko dira, hortaz, eskaintza ekonomikoaren aldaerak.

2. Formulak aplikatuz ebaluatu daitezkeen irizpideak baloratzeko behar diren dokumentuak, baldintza-agiriaren karatulan zerrendatuak.



III.- DOKUMENTAZIOA AZTERTZEA ETA KONTRATAZIO-MAHAIAREN JARDUNA.

18.- KONTRATAZIO-MAHAIA.

Kontratazio-mahaia eskaintzak baloratzeko organo eskuduna da. SPKL-aren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez eratu da. Mahaiburu batek, lau kidek gutxienez eta idazkari batek osatuko dute.

SPKL-ak eta hura garatzeko xedapenek arautzen dute kontratazio-mahaiaren funtzionamendu-araubidea.

C GUTUN-AZALA irekitzeko jendaurreko egintza kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

18.1 Kontratazio-mahaiaren jardunaren aurretiko jarduketak.

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, kontratazio-mahaiaren lehen egintza A gutun-azala irekitzea da. Horretarako, lizitatzailen aktan bilduko dira lizitatzailen eta deklarazioen zerrenda eta erantsitako dokumentazioa, hala dagokionean.

SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, aurkeztutako deklarazioan eta erantsitako dokumentazioan akats materialak daudela ikusiz gero, interesdunei jakinaraziko die, eta gehienez ere hiru egun baliouduneko epea emango zaio lizitatzailari akatsa zuzen dezan.

Gainera, lizitatzaileri jakinarazten zaizkien zuzenketa-eskaerak Haurreskolak Partzuergoko kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman ere iragarriko dira.

Hala ere, lizitatzaille baten deklarazioan akats nabarmenak edo zuzendu ezin diren akats materialak badaude, ez da onartuko lizitazioan.

18.2 Kontratazio-mahaiaren jarduna.

a) Kontratazio-mahaiaren bigarren egintza. B gutun-azala irekitzea.

Kontratazio-mahaia eratuko da, eta, hala badagokio, aurkeztutako dokumentazioaren akatsak edo omisioak zuzendu ondoren, onartu eta baztertu behar diren lizitatzailleak zehaztuko ditu.

Segidan, saio berean, mahaiak B GUTUN-AZALA irekiko du: FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK (onartu diren lizitatzailleek bidalita).

b) Kontratazio-mahaiaren hirugarren egintza. C gutun-azala irekitzea.

Mahaia eratu egingo da, eta jendaurreko ekitaldian jakinaraziko ditu onartutako proposamenak, baztertuak eta ezesteko arrazoiak, eta eskaintzei esleitutako haztapena, formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei dagokienez.

SPKLren 146.3 artikulua arabera gutxienezko puntuazio-atalase bat eskatu bada ebaluazio globalerako onartuak izateko, lizitatzaileri eskatuko zaie gutxienezko puntuazio-atalasea lortzea, Kontratazio Mahaiak kontuan har ez ditzan eta puntuaziorik lortzen ez duten eskaintzek hautaketa-prozesuarekin jarrai ez dezaten.

Jarraian, Haurreskolak Partzuergoko kontratatzailearen profilean iragartzen den leku, egun eta orduan, C GUTUN-AZALA irekiko da: ONARTUTAKO PROPOSAMENEN FORMULEN ARABERA

Oraola Hiribidea, 29- Jaizkibel eraikina, I- 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943-921750 Fax 943-120737



KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK, eta horietan jasotako eskaintza ekonomikoak irakurriko dira. Horretarako, dokumentazio horretako akatsak edo omisioak zuzendu behar badira, Mahaiak gehienez ere sei egun balioduneko epea emango du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Kontratazio-mahaiaren laugarren egintza. Adjudikazio-proposamena

Kontratazio-mahaiak adjudikazio-proposamena egingo du, eskaintzen ebaluazio globala egin ondoren.

Adjudikazio-proposamenak ez dio inolako eskubiderik ematen lizitzaileari Administrazioaren aurka.

18.3 Kontratazio-mahaiaren egintzen emaitzak publiko egitea.

Kontratazio-mahaiaren egintzen emaitzak gutun-azalak irekitzeari buruzko aktetan jasoko dira.

19.- ESKAINTZA ANORMALKI BAXUAK.

Balio anormalki baxuak dituzten eskaintzak SPKLren 149. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko dira, baldin eta baldintza-agiri honen karatulan parametro objektiboak aurreikusten badira, eta parametro horien arabera ikusiko da zein diren balio anormalki baxuak dituzten eskaintzak.

20.- BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA, ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA EGIN AURRETIK.

Prozedura behar bezala amaituko dela bermatzeko, Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena onartu aurreko edozein unetan eskatu ahal izango da lizitzaileek kontratatzeke legez eta baldintza-agiri honetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkez ditzatela. Agiri horiek honako hauek dira:

DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA.

1.- *Jarduteko gaitasun osoa egiaztatzeko aurkeztu behar den dokumentazioa, honako kasu hauetan:*

a) Pertsona fisikoa: proposamenaren egilearen NANA edo dokumentu baliokide frogagarria.

b) Pertsona juridikoa: eratze-dokumentua edo eskritura, estatutuak edo sortze-egintza. Jarduera erregulatzeko arauak bertan behar bezala jasota egon beharko dute, eta, hala dagokionean, zein pertsona juridiko den, dagokion erregistro publikoan inskribatuta.

Edonola ere, kontratuaren xede diren prestazioek jardueraren helburuetan, xedeetan edo eremuetan sartuta egon beharko dute, dagozkien estatutuen edo eratze-arauen arabera.

c) Aldi baterako enpresa-elkarteak: kide bakoitzak bere gaitasuna, nortasuna, ordezkartza eta kaudimena egiaztatu beharko ditu.

d) Espainiarrak ez diren baina Europar Batasuneko estatuetako herritar diren enpresaburuak: kokaturik dauden estatuko legeekin bat etorritik, egoki den erregistroan inskribatuta egotearen egiaztatzea; eta, bestetik, aplikagarriak diren Batasuneko xedapenekin bat etorritik, zinpeko deklarazio edo egiaztagiria bat aurkeztea. Halaber, estatu batek bere lurraldean

kokatutako enpresei baimen bereziren bat izatea edo erakunde jakin batekoak izatea eskatzen badie bertan dena delako zerbitzua emateko, enpresek egiaztatu egin beharko dute betetzen dutela betekizun hori.

e) Europar Batasunetik kanpoko estatuetakoa pertsona fisikoak edo juridikoak: Espainiak duen diplomaziako misio iraunkorraren txostena edota, hala badagokio, enpresa kokaturik dagoen lurralde-eremuko bulego kontsularrarena. Era berean, aurkezten den dokumentazioarekin batera, dokumentuen bidez egiaztatu beharko da atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak Espainiako estatuko enpresak baimentzen dituela administrazioarekiko kontratuak egitera, funtsean antzekoak diren moduetan. Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Hitzarmena sinatu duten estatuetakoa enpresek ez dute elkarrekikotasunari buruzko txostena aurkeztu behar.

2.- Ordezkaritza egiaztatze dokumentuak.- Beste baten izenean proposamenak sinatzen dituztenek horretarako ahalorde nahikoa aurkeztu beharko dute. Lizitatzaila pertsona juridikoa baldin bada, ahalorde horrek Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du. Ekintza zehatz baterako ahalordea baldin bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribaturik egotea, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduko 94.1.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, ordezkari izateko ahalorde nahikoa duen pertsonak Nortasun Agiri Nazionalaren kopia konpultsatua aurkeztu beharko du notariotzaren edo administrazioaren bidez; edo, hala dagokionean, horren baliokidea den dokumentua.

3.- Sailkapena egiaztatzen duen dokumentazioa

- Legearen arabera kontratisten sailkapena eskatu ahal denean, betekizun hori baldintza-agiri honen karatulan jasoko da.

- SPKL-aren 89.1 artikulua b) eta c) letretan ezarritakoarekin bat etorrita, zerbitzu-kontratuak direnean, ezin izango da eskatu enpresaburuaren sailkapena. Lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuko baldintza-agirietan kaudimen ekonomikoaren eta finantzarioaren gutxienezko betekizunak ezarriko dira, bai eta kaudimen teknikoari edo profesionalari lotutakoak ere. Kasu horietan, enpresaburuak honela egiaztatu ahal du bere kaudimena: kontratuari dagokion taldean edo azpitaldean sailkatuta, edo lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean ezarritako kaudimen-betekizun espezifikokoak betetzen dituela egiaztatuta (betekizunak kontratuko baldintza-agirietan azalduta daude). Sailkapena ezin izango da eskatu edo aplikatu gainerako kontratu motetan. Kontratu horietarako, eskatzen diren kaudimen-betekizun espezifikokoak lizitazio-iragarkian zehaztuko dira, edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuko baldintza-agirietan zehaztuko dira.

- Enpresa sailkapenaren zain baldin badago, sailkapena lortzeko eskabidea egin duela egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko du, eta eskatutako sailkapena lortu duela egiaztatu beharko du akatsak zuzentzeko edo falta diren dokumentuak entregatzeko ezartzen den epean.

- Europar Batasuneko estatuetakoa enpresaburuari, espainiarrak ez badira, ezin izango zaie ezarri sailkatuta egoteko betebeharra, ez kontratura bakarrik aurkezten direnean, ez elkarte batean aurkezten direnean; horrek ez du esan nahi beren kaudimena egiaztatu behar ez dutenik.

4. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, tekniko eta profesionala egiaztatze dokumentazioa (eranskinean jasotako ereduaren arabera).

Sailkapena eskatu behar ez denean, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, profesionala eta tekniko (baldintza-agiri honen karatulan eskatutakoa) justifikatu beharko dira, bertan eskatutako dokumentuak aurkeztuta.

Aldi baterako enpresa-elkarteak direnean, kaudimena zehazteko, elkarteko kide bakoitzarentzat egiaztatu diren ezaugarriak metatuko dira, eta edonola ere SPKL-aren 79.5 artikuluan eta Herri Administrazioen kontratuei buruzko Legearen Araudi Nagusiaren 52. artikuluan sailkapenari buruz ezarritakoa beteko da.

5.- Atzerriko enpresek, kontratua Espainian exekutatzekoa baldin bada, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko deklarazioa



aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, eta, kasua suertatuko balitz, lizitatzaileri legokiokoen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egitearekin.

Lizitatzaileren Erregistroa ZIURTAGIRIaren bidez egiaztatzea.-

Baldintza-agiri honetako 1., 3. eta 4. ataletan ezarritako inguruabarrak egiaztatzeko dokumentuen ordez (jarduteko gaitasuna, ordezkaritza eta kontratisten gaitasuna egiaztatzeko dokumentuak), honako erregistro hauetako edozeinek igorritako ZIURTAGIRIA aurkeztu ahalko da:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialak igorritakoa; edo,
- b) Estatuko Administrazioako Lizitatzaileren eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialak igorritakoa (hala dagokionean); edo
- c) Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiria.

Ziurtagirian jaso ez diren inguruabarrei dagokienez, dagokion erregistroaren ziurtagiriarekin batera, egiaztatzeko dokumentuak ere aurkeztuko dira.

Edonola ere, ziurtagiriarekin batera, ziurtagirian adierazitako inguruabarrak ez direla aldatu azaltzen duen lizitatzaileren erantzukizunpeko deklarazioa ere aurkeztu beharko da.

Kasu horretan, eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute lizitatzailerek, gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean. Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak badaude, gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango da akatsa zuzen dezan.

Ohartarazten da legez eta baldintza-agiri honetan kontratatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen diren ikusteko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango dela.

Epe horretan beharrezko dokumentazioa aurkezten ez bada, lizitatzailera prozeduratik kanpo geratuko da.

IV.- ESKAINTZAK BALORATZEA ETA SAILKATZEA, KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA

21.- ESKAINTZAK SAILKATZEA.

Kontratazio-organoak beheranzko hurrenkeran sailkatuko ditu aurkeztutako proposamenak, baldintza-agiri honen karatulan ezarritakoarekin bat etorruta, gutxiegiako balioak dituztela aitortu ezean. Sailkapen hori egite aldera, baldintza-agirietan aipatutako adjudikazio-irizpideei erreparatuko zaie, eta xede horretarako behar diren txosten tekniko guztiak eskatuko ditu.

Berdinketa haustea.- Zenbait proposamen onuragarriren artean berdinketa gertatzen baldin bada (puntuazio bera lortu baldin badute, bi dezimal kontuan hartuta), esleipenerako lehentasun hurrenkerarako SPKL-ko 147.2 artikuluan ezarritako esleipen-irizpideak jarraituko dira.

Hutsik.- Kontratazio-organoak ezin izango du adjudikatu gabe utzi lizitazioa, baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat baldin badago.

Uko egitea eta atzera egitea.- Hala eta guztiz ere, SPKL-aren 152. artikuluan ezarritako baldintzetan, Administrazioak, adjudikazioa ebatzi aurretik, kontratua egiteari uko egin ahalko dio, interes publikoko arrazoiengatik. Halaber, izapidetutako prozeduran atzera egin ahalko du, prozedurak huts zuzendu ezinak baldin baditu. Kasu batean zein bestean lizitatzaileri kalte-ordaina eman beharko die, lizitazioaren parte hartzeko egin dituzten gastuak konpentsatzeko.



22.- AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA.

Ekonomiaren aldetik eskaintza abantailatsuena aurkeztu duen lizitatzailerari kontratazio-organoak eskatuko dio hamar egun (10) balioduneko epean honako dokumentu hauek aurkez ditzan (lizitatzailerak errekerimendua jaso duen egunetik zenbatzen hasiko da epea):

- a) **Dokumentazio administratiboa:** kontratazioa egiteko legez eta baldintza-agiri honetan eskatu diren betekizunak betetzen direla egiaztatzea.
Proposamenak aurkezteko azken eguna izango da ezarritako betekizunak betetzen diren egiaztatze eguna.
- b) Baldintza-agiriaren karatulan administrazio kontratatzailearen alde **behin betiko bermea** udal-diruzaintzan eratzeko eskatzen baldin bada, bermearen frogagiria aurkeztu beharko du.
- Zenbatekoa.- Baldintza-agiri honen karatulan, dagokion atalean (BEHIN BETIKO BERMEA) ezarrita dago.
 - Bermea emateko moduak.- Bermea SPKL-aren 108. artikuluan aurreikusitako edozein modutan aurkeztu ahalko da.
 - Administrazioak eskubidea dauka abalen sinaduraren legitimazioa eskatzeko.

Aldi baterako enpresa-elkartea denean, parte hartzen duten enpresen izenak eta helbideak zehaztu beharko dira. Elkartea osatzen duten enpresetako batek edo batzuk era dezakete bermea, baina ezinbestekoa da eskatzen den guztizko zenbatekoa osatzea, eta bermeak aldi baterako elkarteko enpresa guztiak hartzea modu solidarioan.

Bermeak eragindako erantzukizunak.- Behin betiko bermea eskatzen baldin bada, SPKL-aren 110. artikuluan ezarritako kontzeptuei erantzun beharko die.

c) **Ziurtagiri positiboa**, dagokion foru-ogasunak emanda, edo, hala dagokionean Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak. Ziurtagirian ziurtatu behar da zerga-betebeharren ordainketa egunean dagoela.

3/2011 Legearen 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, interesdunak prozedura honetan lehiatzeko proposamena aurkezten duenean, baimena ematen dio organo kudeatzaileari administrazioarekin zerga-betebeharrak bete dituela egiaztatze agiriak eskatu eta biltzeko; hortaz, adjudikaziodun izateko proposatu den enpresak ez ditu aurkeztu beharko.

Lizitatzailerak batek APKLEOren 13. artikuluan aipatzen diren zerga-betebeharretako aitorten edo dokumentu guztiak edo horietako bat aurkeztu behar ez baldin baditu, horri buruzko erantzukizunpeko deklarazioa egin beharko du.

Salbuespenen bat aplikatu behar izanez gero, erantzukizunpeko deklarazioaren bitartez frogatu beharko da.

d) **Ziurtagiri positiboa.**- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean daudela egiaztatze ziurtagiria.

e) **Alta**, urteko ekitaldikoa, edo **jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagokion azken ordainagiria, eta zerga horren ordainketan baja eskatu ez izana ziurtatzeko erantzukizunpeko deklarazioa.** Zerga hori ordaintzetik salbuetsita egonez gero, zerga horren matrikulan baja eskatu ez izana ziurtatzeko erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztu beharko du, eta salbuespen-kasua zehaztuko du.



f) Adjudikazioduna aldi baterako enpresa-elkartea baldin bada, elkartearen eraketari buruzko eskritura publikoa aurkeztu beharko du. Horrez gain, elkarteko kide bakoitzak Ogasunaren arloko eta Gizarte Segurantzaren arloko ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko ditu, bai eta jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruzko dokumentazioa ere.

g) Hala dagokionean, kontratua exekutatzeko edo kontratuari adskribatzeko hitzartutako baliabideak badauzkala egiaztatze dokumentazioa, SPKL-aren 76. artikulua araber, eta kontratazio-organoak eskatuta.

Zuzentzea. Dokumentuetan hutsak edo omisioak egonez gero, eta zuzendu ahal badira, interesdunari posta elektronikoz jakinaraziko zaio, eta gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango zaio, zuzen ditzan.

Ez-betetzea. Aurkeztu behar duen dokumentazioa epe horretan aurkeztu ezean, eskaintza kendu duela joko da, eta lizitazio-prozeduratik baztertuko da. Eskaintzak sailkatzen dituen hurrenkerari jarraituta, hurrengo lizitatzailerari eskatuko diote dokumentazio bera.

Erantzukizunpeko deklarazioa egitean datuak faltsutu baldin baditu, Administrazio honekin kontratuak egiteko debekua ezartzeko kausa osatuko du, SPKL-aren 71. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

23.- ADJUDIKAZIOA.

Dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan esleitu beharko du kontratua kontratazio-organoak, SPKLren 150.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuz. Kontratazio-organoak erabakiko du esleipena, ebazpen arrazoituan..

Lizitzaileei jakinaraztea. Adjudikazioa lizitzaileei jakinaraziko zaie, formalizatzeko epea ere adierazita.

Edonola ere, jakinarazpenean eman beharko dira baztertutako lizitzaileek, hala dagokionean, adjudikazioaren aurka behar bezala oinarritutako errekurtsua aurkeztu ahal izateko beharko dituzten datuak.

Hartzaileak jakinarazpena jaso duela ziurtatzen duen edozein bitartekoren bidez egingo da jakinarazpena.

Posta elektronikoa lehenetsiko da, eta lizitzaileek proposamenetan zehaztu dituzten helbide elektronikoetara bidaldiko da.

Adjudikazioa publiko egitea. Jakinarazpenarekin batera, aldi berean, kontratatzailearen profileen argitaratuko da adjudikazioa, formalizatzeko epea ere adierazita.

24.- KONTRATUA PERFEKZIONATZEA.

Kontratua formalizazioaren bidez perfektzionatuko da.

Kontratazio-organoak egoitza duen lekuan kontratua egin dela joko da.

25.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Kontratua formalizatzeko dokumentu administratiboak lizitazio-baldintzak bete behar ditu, zehatz-mehatz. Dokumentu hori nahikoa izango da, edozein erregistro publikotan sartzeko.

Oraola Hiribidea, 29- Jaizkibel eraikina, I.- 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943-921750 Fax 943-120737



Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak sortutako gastuak.

Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezin da inola ere sartu adjudikazio-baldintzak aldatzen dituen klausularik.

26.- FORMALIZATZEKO EPEA.

- Kontratazioaren arloko errekurtsio berezia jar daitekeen, SPKLren 44.1 artikulua arabera, ezin izango da formalizatu hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen, adjudikazio-jakinazpena lizitatzailerik bidaltzen zaienetik zenbatzen hasita.

Epe hori igaro ondoren, kontratua etetea eragiten duen errekurtsorik aurkeztu ez baldin bada, edo, hala dagokionean, errekurtsioa ebazteko organo eskudunak etenaldia amaitutzat jo eta gero, adjudikaziodunak kontratua formalizatzeko du gehienez ere bost eguneko epean, formalizatzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

- Kontratuaren aurka kontratazio-arloko errekurtsio berezia jarri ezin baldin bada, kontratua formalizatzeko epea hamabost (15) egun balioduneko izango da, lizitatzailerik eta hautagaiek adjudikazio-jakinazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Kontratua formalizatu arte, ez da exekutitzen hasiko, presako edo larrialdiko espedientea izapidetu ezean.

27.- KONTRATUA EZ EGITEKO ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEKO ERABAKIA.

SPKLren 152. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Kontratazio Organoak, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik, kontratua ez esleitzeko edo egiteko erabakia hartu ahal izango du. Prozeduran atzera egin ahal izango du, halaber, kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen-prozedura arautzen duten arauetan zuzendu ezin den arau-hauste bat hautematen duenean. Kontratua ez egiteko erabakia eta prozeduran atzera egitea kontratua formalizatu aurretik hartu beharko dira, aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.

28.- EZ FORMALIZATZEAREN ONDORIOAK.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua adierazitako epean formalizatu ez bada, administrazioak erabaki ahal izango du eskatu duen behin-behineko bermearen behin betiko bermearen zenbatekoa konfiskatzea. Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak administrazioari egotzi ahal bazaizkio, berandutzeak sor diezazkiokeen kalte-galeren ordaina emango zaio kontratistari.

29.- ASEGURUAK.

Behin kontratua formalizatuta, adjudikaziodunak honako dokumentu hau entregatu beharko du:

ASEGURU-ENTITATEAREN ZIURTAGIRIA: bertan ziurtatu beharko da kontratistak sinatutako erantzukizun zibileko poliza indarrean dagoela.

Adjudikaziodunak bere kargura kontratatutako du erantzukizun zibileko aseguruak, eta aseguruak indarrean jarraitu beharko du kontratuaren iraupenean eta berme-epean, klausula orokorrak eta ustiapenari lotutako klausulei, erantzukizun patronalari eta lanen ondorengo erantzukizunari buruzko klausulak ere kontuan hartuta. Kontratistak aseguraturak egon beharko du, eta, hala dagokionean, azpikontratistak ere bai.



Aseguratuta dagoen kapitala, gutxienez, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren zenbatekoa izan beharko da.

30.- KONFIDENTZIALTASUNA.

Adjudikazioaren publikotasuna eta hautagai eta lizitatzaillei eman beharreko informazioa gorabehera, SPKL-aren 133. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, kontratazio-organoak ezin izango du zabaldu enpresek konfidentzialtzat izendatuta eman duten informazioa.

Enpresa lizitatzailleek eman dituzten dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat har daitezke, baldin eta, hirugarrenei emanda, lizitatzailleen merkataritza interes legitimoek kalte egin ahal badie, sektoreko enpresen arteko lehia leiala kaltetu ahal bada, edo Datu Pertsonalen Babesari buruzko Legean ezarritako debekuetako bat baldin bada.

Kontratazio-organoak kontuan har dezan, beharrezkoa denean, enpresei eskatuko zaie eskaintzan zer dokumentu edo argibide konfidentzialtzat hartzen duen zehazteko.

V. KONTRATUA EXEKUTATZEA

31.- LANAK HASTEAK.

Lanen hasiera data ofiziala akta sinatu eta hurrengo eguna izango da; eta, akta egin ezean, kontratua formalizatu eta hurrengo egunean.

Espedientea presakotzat deklaritzen baldin bada, Administrazioak lanak hasteko agintzen duenetik aurrera –idatziz agindu beharko du– hasiko da zenbatzen kontratua exekutatzeke epea, eta, Administrazioak halako agindurik ematen ez baldin bada, adjudikazioari buruzko jakinarazpena jaso eta kontratistak behin betiko bermea eman eta hurrengo egunean.

32.- KONTRATUAREN ARDURADUNA.

Kontratazio-organoak pertsona bat izendatu ahal izango du, kontratuaren arduraduna izan dadin. Pertsona horrek kontratuan ezarritako prestazioaren exekutatzea zuzendu eta ikuskatuko du; hain zuzen ere, prestazioa behar bezala exekutatzen dela ikuskatuko du, eta horretarako jarraibideak emango ditu.

Kontratuaren arduraduna eta beraren laguntzaileak noiznahi joan ahal izango dira prestazioa egiten den lekura; halakoetan, kontratistak izendatutako pertsona haiekin joango da.

33.- KONTRATUA BETETZEA.

Kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua exekutatzeke arriskua eta mentura.

Kontratua exekutatzeke, kontratista zorrotz lotu behar zaio baldintza teknikoaren agiriari, lan-programari eta baldintza-agiri honetan eta karatulan adierazitakoaren arabera kontratuaren osagai diren gainerako dokumentuetan ezarritakoari, eta aintzat hartu behar ditu horiek exekutatzeke edo interpretatzeke Administrazioaren ordezkariak idatziz ematen dizkion jarraibideak.

Kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako dokumentuak (haren osagai baitira) edo Administrazioak onartutako jarraibide, baldintza-agiri edo denetariako arauak ez ezagutzeak ez du salbuesten enpresa kontratista horiek guztiak bete beharretik.



Kontratatik berak hartu beharko du egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazioen kalitate teknikoaren erantzukizuna, eta, kontratua exekutatzeko zer edo zer egin gabe utzi duelako, edo akatsak direla-eta, metodo traketsak direla-eta, edo amaiera txarra dela-eta administrazioari edo beste inori ondorio eragin bazaio, orduan ere kontratistarena izango da erantzukizuna.

34.- KONTRATISTARI ZIGORRAK EZ-BETETZEAGATIK.

A. Kontratua gauzatzeko epeak ez betetzea

Baldin eta kontratatik, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, atzerapena izan badu kontratua gauzatzeko epea betetzeari dagokionez (bai guztizko epea, bai, hala badagokio, epe partzialak), administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, bermea galtzea edo zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 0,60 euroko proportzioan, BEZik gabe.

Berandutzagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren ehuneko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo hura gauzatzeko jarraitzea erabakitzeko, zigor berriak ezarrita.

B. Prestazioen betearazpen partziala ez betetzea

Kontratatik, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratuan zehaztutako prestazioen zati bat ez badu bete, administrazioak aukeran izango du kontratua suntsiaraztea edo kontratuaren prezio osoaren ehuneko 10eko zigorra ezartzea.

C. Akatsekin betetzea

Prestazioa behar bezala betetzen ez bada, Administrazioak zenbateko bakoitzeko zigorrak ezarri ahal izango ditu, baina zigorren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino handiagoa, BEZik gabe, eta zigorren guztizkoak ezin izango du gaingitu hitzartutako prezioaren ehuneko 50.

D. Ingurumen, gizarte edo lan arloko betebeharrak ez betetzea

Kontratatik ingurumen, gizarte edo lan arloan dituen betebeharrak betetzen ez baditu, batez ere soldatak ordaintzeko atzerapenak behin eta berriz gertatzen badira, edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako soldata-baldintzak baino txikiagoak aplikatzen badira, eta atzerapen hori larria eta dolozkoa bada, administrazioak, spklren 201. Artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, horietako bakoitzaren zenbatekoari dagozkion zigorrak ezarri ahal izango ditu, betiere kontratuaren prezioaren ehuneko 10 gaingitzen ez badute, bezik gabe; eta zigorren guztizkoak ezin du prezioaren ehuneko 50 gaingitu.

E. Azpikontratatikiko betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, kontratatik azpikontratatik dituen betebeharrak betetzen ez baditu, administrazioak horietako bakoitzaren zenbatekoko zigorrak ezarri ahal izango ditu, gehienez ere kontratuaren prezioaren ehuneko 10ekoak, BEZik gabe, eta zigor horien guztizkoak ezin izango du gaingitu hitzartutako prezioaren ehuneko 50.

F. Langileen subrogazio-betebeharrak ez betetzea



Kontratatik ez baditu betetzen kontratuaren xede den zerbitzuak ukitutako langileen subrogazioaren arloko betebeharrak, administrazioak, spklren 130.4 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino handiagoa, bezik gabe, eta zigorren guztizkoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren ehuneko 50.

35.- PREZIOA ORDAINTZEA.

Kontratatik eskubidea dauka benetan exekutatu dituen zerbitzuak ordain dakizkion, hitzartutako prezioetan eta administrazioak emandako aginduei jarraituz.

Kontratuaren ordainketa-araubidea baldintza-agirian ezarritakoa izango da, behin kontratuaren xede den prestazioa exekutaturakoan, eta ordainketa osorik egin ahal izango da, edo zati bat, konturako ordainketen bidez edo, segidako traktuko kontratuen kasuan, hitzartutako epemuga bakoitzean ordaindu.

Ordainketa faktura elektronikoa jasotakoan egingo da. Kontratatik igorriko du faktura, aurreko klausulan ezarritakoarekin bat etorrira.

36.- FAKTURA ELEKTRONIKOA.

Kontratatik euskarri elektronikoa erabili beharko du, fakturak igortzeko eta HAURRESKOLAK PARTZUERGOAri bidaltzeko.

Sinadura elektronikoa aurreratuen bidez sinatu diren fakturak soilik onartuko dira. Sinadurak, sinadura sortzeko gailu seguruaren bidez sortutako ziurtagiri onartuan oinarrituta egon beharko du.

37.- PREZIOAK BERRIKUSTEA.

Prezioen berrikuspena baldintza-agiri honen karatulan, kontratu-dokumentuan eta SPKL-aren 103. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera egingo da. Edonola ere, berrikuspenetik kanpo dago exekutatu den lehen % 20a, eta, kontratua formalizatu zenetik hasita, lehenengo urtea.

Kontratuan aplikatu beharreko berrikuspen-formula edo indizea aldaezina izango da kontratua indarrean dagoen bitartean, eta berak zehaztuko du prezioen berrikuspena noiz egin, adjudikazioaren eguna kontuan hartuta.

38.- LAN- ETA GIZARTE-BETEBEHARRAK.

Adjudikatu den lana egingo duten langileei dagokienez, kontratatik lan-arloan indarrean dauden araudiak, Gizarte Segurantzaren arlokoa, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeari buruzkoak eta lan-arriskuen prebentzioari buruzkoak bete beharko ditu, kontuan hartuta azken horiek gizarte-prestakuntzari ere lotuta daudela. Kontratatik ziurtatu behar du azpikontratatik ere beteko dituztela lan-arloan indarrean dauden araudiak, langileen lan-baldintzei dagokienez.

Kontratuaren xede den zerbitzua egingo duten langileei adjudikaziodunak ordaindu beharko die, era eskusiboan. Halaber, adjudikaziodunaren kargura izango dira gizarte- eta lan-kostuak, eta indarreko legeak eta eragindako hitzarmenak bete beharko ditu. Hortaz, HAURRESKOLAK PARTZUERGOAK ez du inolako erantzukizunik izango kontratistaren eta langileen arteko harremanean.



Zerbitzu-kontratua azkentzen denean, kontratuaren xede diren lanak egin dituztenak ezin dira, inoiz ere ez, sektore publikoko ente, organismo edo entitateko langile modura geratu.

Laneko greba egiten baldin bada, eta kontratuaren xede den zerbitzuari eragiten badio, adjudikaziodunak, kontratazio-organoak adierazitako epean eta moduan, irtenbideak aurkitu beharko ditu administrazioak zehazten dituen gutxienezko eta ezinbesteko zerbitzuak emateko. Adjudikaziodunak irtenbide horiek eskaintzen ez baditu, edo martxan jartzen ez baditu, kontratuko zuzendaritzak gutxienezko zerbitzu onartuak emateko beste kontratu batzuk sustatu ahalko ditu, beharrezko iritziz gero. Beste kontratu horiek adjudikaziodunaren kontura izango dira, eta kontratu horien zenbatekoa beraren fakturaziotik kenduko zaio. Hirugarrenei kontratatzen zaizkien lan horiek sortzen duten erantzukizuna ere adjudikaziodunarena izango da, baldintza-agiri honetan zehazten diren ondorio guztietarako.

39.- BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.

Kontratatik kontratuan hitzartutako epeetan modu egokian egikaritzeko beharrezkoak diren ekipo eta baliabide osagarriak eskaini eta mantendu beharko ditu nahitaez zerbitzua edo prestazioa egiteko, eta bereziki, kontratua exekutatzeko pertsona arduradunen zerrendan sartu direnak.

Enpresako langileak enpresaburu ez beste inori atxikita egongo dira; kontratatik soilik edukiko ditu enplegatzaileari dagozkion eskubideak eta betebeharrak.

Gainera, enpresa kontratatik ezin izango ditu ordeztu eskaintzan azaltzen diren langile teknikoak, Administrazioak berariazko baimena eman ezean.

Administrazioak desegokitzat jotzen dituen elementu guztiak bazter ditzake. Hala ere, enpresak ebazpenaren kontrako erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio Administrazioari, eta, horretarako, egutegiko hamar eguneko epea edukiko du Administrazioak ebazpena idazki bidez jakinarazten dionetik.

40.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO HIZKUNTZAREN ARLOKO BALDINTZAK.

Kontratuaren xedea diren emaitzak (azterlanak, txostenak, proiektuak...) hezkuntza ofizial bietan aurkeztu beharko dira, betiere honako kasu hauetan:

- emaitza osoa edo zati bat herritarrei hedatzekoa baldin bada;
- kontratuaren xede den emaitzaren hartzaileak haurrak edo gazteak baldin badira.

Kontratuaren xede den emaitza egiteko, harreman zuzena exekutatu behar baldin bada herritarrekin, herritarrek aukeratutako hizkuntza kontuan hartu beharko da, eta hizkuntza ofizial guztien erabilera bermatu beharko da harreman hori sustatzeko oinarri edo jarduera guztietan (inkestak, galdera-sortak, eztabaida-taldeak...). Horretarako, kontratatik edo azpikontratatik baliabideen kopuru egokia erabili beharko du, herritarrekin harreman zuzena duten eginkizunak euskaraz garatzeko.

41.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK.

SPKLren 202.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, kontratu hau betearazteko honako baldintza berezi hauek eskatuko dira, gizarte-, lan- eta etika-arlokoak.



Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebehartzat hartzen dira, eta, beraz, SPKLren 201. Artikuluan aurreikusitakoaren babesean, baldintza horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartu ahal izango da, lege horren 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

1. Langabeziak bereziki eragiten dien kolektiboen laneratzea sustatzeko baldintzak.

Kontratua exekutatzen langile-kontratu berriak egin behar badira, enpresa kontratistak lehentasuna eman beharko die langabezia-egoera legalean dauden pertsonen, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege-dekretuaren 208. artikuluan ezarritakoaren arabera (dekretu horrek onartzen du Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategina). Hortaz, lan zehatzen ezaugarriari erreparatuta ezinezkoa izan ezean, gutxienez kontratu berrien % 15 bete beharko dute kolektibo horretako pertsonak.

Kontratua exekutatzen egin diren langile-kontratu berriak egiaztatu beharko ditu kontratistak, bai eta langabezia bereziki eragiten dien pertsonen kontratuak ere. Horretarako, honako datu eta dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu: izen-abizenak, NANA eta Gizarte Segurantzaren alta eskatu duela eta afiliatuta dagoela ziurtatzeko dokumentua.

Kontratazio-betebehar hori salbuetsi ahalko da, baldin eta kontratuaren adjudikazioak aurreko plantilla subrogatzea baldin bada, edota kontratu berriak beste inor kontratatu beharra ez badakar.

Eskatutako dokumentazioa eman ezean, edo klausula egokian zehaztutako langabezia-egoera legalean dauden pertsonak kontratatzen betebeharra bete ezean, kontratua urratu dela joko da, eta kontratuaren aurrekontuaren % 10era arteko zigorra ezarri ahalko da.

2. Berme sozialeko baldintzak.

Lan-baldintzak betetzeko betekizunak.

Enpresa kontratistak lan-arloan, Gizarte Segurantzaren, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden araudiak bete behar ditu. Horrez gain, bereziki, prestazioak lan-ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboaren mende baldin badaude, kontratistak lan-ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboaren xedapenak bete beharko ditu.

Enpresa adjudikaziodunak erantzukizunpeko deklarazio egokien mende, edo beharrezkoa denean, organismo eskudunen ziurtagirien mende ziurtatu beharko du kontratua exekutatzen lanpostuen babesaren arloan, lan-baldintzen arloan eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak bete direla.

Betebehar hori bete ezean, kontratua urratu dela joko da, eta kontratuaren aurrekontuaren % 10era arteko zigorra ezarri ahalko da.

Banakako lan-harremanen eta lan-harreman kolektiboen arloko araudia betetzeko betekizunak.

Enpresa kontratistak, kontratua exekutatzen, Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen 6. edo 7. artikuluetako lan-arriskuen prebentzioari buruzko arau-hausterik egin duelako, agintaritzaren eskudunak administrazio-bidetik ezarritako zehapen irmoa ezartzen badiot, enpresa kontratistak kontratua bete ez duela joko da (abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen). Horrelako kasuetan, kontratuaren aurrekontuaren % 5era arteko zigorra ezarri ahalko da, arau-haustea arina baldin bada (6. artikulua) edo % 10era artekoa, arau-haustea astuna baldin bada (7. artikulua).



Kontratua exekutatu bitartean, Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen 8. artikuluan oso larritzat tipifikatuta dagoen arau-hauste bat egiten den bakoitzean, kontratuaren ezinbesteko baldintza bat urratu dela joko da, beraz, kontratistak kontratua suntsiarazteko kausa osatu duela hartuko da, zehapena administrazio-bidetik irmoa izan bezain laster.

Halaber, kontratistak, kontratua exekutatzean, lan-arriskuen prebentzioari lotuta jaso duen edozein zehapenen berri eman behar dio kontratuaren arduradunari, zehapena ezagutu bezain laster. Era berean, haren aurka aurkeztu diren balizko errekurtsoen berri ere eman beharko dio, errekurtsoen ebazpenekin batera. Betebehar hori bete ezean, kontratuaren ezinbesteko baldintza bat urratu duela joko da, eta, zehapena irmoa izan bezain laster, kontratua suntsiarazteko kausa osatuko du.

Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzeko betekizunak.

Enpresa kontratistak, kontratua exekutatzean, Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen 11. edo 12. artikuluetan tipifikatutako lan-arriskuen prebentzioari buruzko arau-hausterik egin duelako, agintaritza eskudunak administrazio-bidetik ezarritako zehapen irmoa ezartzen badio, enpresa kontratistak kontratua bete ez duela joko da (abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen). Horrelako kasuetan, kontratuaren aurrekontuaren % 5era arteko zigorra ezarri ahalko da, arau-haustea arina baldin bada (11. artikulua) edo % 10era artekoa, arau-haustea astuna baldin bada (12. artikulua).

Kontratua exekutatu bitartean, Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen 13. artikuluan oso larritzat tipifikatuta dagoen arau-hauste bat egiten den bakoitzean, kontratuaren ezinbesteko baldintza bat urratu dela joko da, beraz, kontratistak kontratua suntsiarazteko kausa osatu duela hartuko da, zehapena administrazio-bidetik irmoa izan bezain laster.

Halaber, kontratistak, kontratua exekutatzean, lan-arriskuen prebentzioari lotuta jaso duen edozein zehapenen berri eman behar dio kontratuaren arduradunari, zehapena ezagutu bezain laster. Era berean, haren aurka aurkeztu diren balizko errekurtsoen berri ere eman beharko dio, errekurtsoen ebazpenekin batera. Betebehar hori bete ezean, kontratuaren ezinbesteko baldintza bat urratu duela joko da, eta, zehapena irmoa izan bezain laster, kontratua suntsiarazteko kausa osatuko du.

3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako baldintza bereziak.

Kontratistak bermatu behar du kontratua exekutatzean, kontratuko dokumentuetan, publizitatean, irudietan edo materialetan hizkuntzaren erabilera sexistarik ez egitea. Halaber, ezin du erabili emakumeei buruzko irudi edo estereotipo baztertzailerik; aitzitik, berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukizun partekatua, eginkizunen pluraltasuna eta genero-identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

Eusko Legebiltzarrak eman duen Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, eta Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete beharko ditu kontratistak.

Enpresa kontratistak 250 langile baino gehiago baldin badauzka, emakumeei eta gizoni aukera berdinak emateko plan bat duela ziurtatu beharko du, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako legean ezarritakoarekin bat etorrira (zehazki, arestian aipatutako martxoaren 22ko 3/2007 Legea da).

4. Azpikontratistei ordainketak egiteko betekizunak.

Oraola Hiribidea, 29- Jaizkibel eraikina, I.- 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943-921750 Fax 943-120737



Azpikontrastei edo hornitzaileei egin behar zaizkien ordainketak epe egokietan egingo zaizkie, SPKL-aren 216. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira; betekizun hori kontratua exekutatzeko baldintza berezia da.

Cimubisak eskubidea dauka kontratistak azpikontrastei eta hornitzaileei ordainketa egokiak egiten dizkiela ziurtatu ahal izateko. Horretarako, kontratuaren arduradunak eskatuta, kontratistak azpikontrastei edo hornitzaileei ordainketak egin dizkiela ziurtatzeko agiriak aurkeztu beharko dizkio, behin prestazioa emanda.

42. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

SPKLren 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratua gauzatzeko egin beharreko eragiketen ondorioz sortzen diren kalte-galeren erantzule izango da kontratista.

43.- KONTRATUA ALDATZEA.

1. Behin kontratua perfektionatuta, interes publikoengatik baino ezin izango da aldatu, Azpial honetan aurreikusitako kasu eta moduan, eta 191.artikuluan araututako prozeduren arabera, 207.artikuluan aurreikusitako zehaztapenekin. Kasu hauetan, Kontratazio organoak adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistentzat. Hau da:

A. Aurreikusitako aldaketak:

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, karatulan aurreikusitako kasuetan, baldintzetan eta mugekin. Aldaketek kontratuaren prezioaren ehuneko hogeian eragin dezakete gehienez.

Hala ere, kontratua aldatu ahal izango da SPKLren 205. artikuluan berariaz aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, lege beraren 203., 206. eta 207. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta, betiere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

B. Aurreikusi gabeko aldaketak:

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 205. artikuluan berariaz aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, lege beraren 203., 206. eta 207. artikuluetan agindutakoarekin bat etorriz, eta, betiere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

2. SPKL-aren 153. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, formalizatu beharko dira kontratuen aldaketak.

3. Kontratistak nahitaez bete beharko ditu aldaketak. Kontratatari entzunaldia eskaini ondoren adostuko dira, eta dokumentu administratiboaren bidez osatu beharko dira, behin betiko bermea doitu ondoren, hala dagokionean.

44.- KONTRATUA ETETEA.

Baldin eta administrazioak kontratua etetea erabakitzen badu, edo etetea SPKL-aren 198. artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioa bada, akta bat egin behar da egoera hori sorrarazi duten inguruabarren berri jasotzeko eta kontratuaren exekutatzea nola geratu den jasotzeko.



45.- ENPRESA KONTRATISTAREN ONDORENGOTZA, KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN.

Sozietate kontratistak enpresen bat-egite batean parte hartzen badu, kontratuak indarrean jarraituko du bat-egitearen ondorioz sortu den entitatearekin edo entitate xurgatzailearekin; izan ere, entitate hori kontratutik sortutako eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko da. Era berean, enpresak zatitzen direnean edo haien jarduera-adarrak zatitzen direnean, edo enpresen edo haien jarduera-adarren ekarpena edo eskualdatzea gertatzen denean, kontratuak indarrean jarraituko du kasu horien ondorioz sortutako entitatearekin edo entitate onuradunarekin, eta entitate edo entitate onuradun hori kontratutik sortutako eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko da, baldin eta adjudikazioa onartu zenean eskatutako kaudimena badu.

46.- KONFIDENTZIALTASUNA.

Kontratua exekutatzeari lotuta enpresa kontratistak eskuratzen duen informazio guztia konfidentziala da. Administrazioak idatzizko baimena eman ezean, kontratistak eta berak kontratua exekutatzeko izendatutako pertsonak ezin dute euren onurarako erabili, ez eta beste inori eman ere, kontratatutako lanei buruzko informaziorik edo daturik, edo kontratua exekutatzea dela-eta, eskura dezaketen informaziorik edo daturik. Beraz, eskura dauzkaten bitarteko guztiak erabili behar dituzte lanaren emaitza eta informazioen konfidentzialtasun eta isilpekotasuna gordetzeko. Ildo beretik, datu pertsonalik erabili behar ez den lanetan enpresak eta haren langileek ezin dute eskuratu halako daturik, eta isilpean mantendu behar dituzte prestazioari lotuta ezagutzen dituzten datu guztiak.

47.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

Datu pertsonalen tratamendutzat hauxe hartzen da: pertsona fisiko identifikatuei edo identifikagarriei buruzko datuak biltzeko, grabatzeko, gordetzeko, prestatzeko, aldatzeko, blokeatzeko eta ezabatzeke eragiketarako eta prozedura teknikoak, automatizatuak zein automatizatu gabeak, eta komunikazioetan, kontsultetan, interkonexioetan eta transferentzietan gertatzen diren datu-konexioak.

Kontratua betetzeko datu pertsonalak tratatu behar badira, edo enpresa kontratistak edo azpikontratista batek datu pertsonalak erabili behar baditu, SPKL-aren hogeita bostgarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko da, bai eta honako arau hauek ere:

1. Kontratistak tratamenduaren arduradunaren jarraibideak aintzat hartuta erabili behar dituzte datuak.
2. Datu pertsonalak kontratuaren xedea betetzeko baino ez dira erabili behar; ezin dira erabili kontratuan ezarritakoaz besteko erabilera baterako.
3. Kontratua dela-eta eskuratzen diren datu pertsonalak ezin zaizkio eman beste inori. Hori dela eta, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalak edo haiek biltzen dituzten fitxategiak inori ez helarazteko, emateko, lagatzeko edo komunikatzeko, ez ahoz ez idatziz, ez baliabide elektronikoen bidez, ez paperean ez atzipen informatikoez baliatuta, nahiz eta ikusteko soilik izan.
4. Kontratistak eta kontratuaren xede den prestazioan parte hartzen duten langileek Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 10. artikuluan ezarritakoa bete behar dute, hau da, datu pertsonalak isilpean gorde behar dituzte. Betebeharrak horrek indarrean jarraituko du kontratua azkendu ondoren (dela bete egin delako, dela suntsiarazi egin delako).
5. Kontratistak, Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eskatzen duena aintzat hartuta, kontratu honen xede diren lanak egiteko erabili behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko neurri teknikoak, administratiboak eta antolamendu-neurriak ezarri behar ditu:

- a) Hori dela eta, lanak hasi baino lehen enpresak kontratazio-organoari eman behar dio datu pertsonalak erabiliko dituzten langile guztien zerrenda, honako datu hauek jasota: izen-deiturak, egitekoak eta lantokia. Kontratuko lanak exekutatzeko ari direla langile bati baja eman behar bazaio edo beste bat kontratatu behar bada, enpresa adjudikaziodunak astebete pasatu baino lehen eman behar dio zerrenda berria kontratazio-organoari. Bai enpresa adjudikaziodunak, bai zerrendako langileek konpromisoa hartu behar dute, idazki formal baten bitartez, erabiltzen dituzten datu pertsonalen sekretua gordetzeko.
- b) Adjudikaziodunak baldintza-agiri honen karatulan adierazitako segurtasun-neurriak ezarri behar ditu datuen tratamendurako zentroetan, lokaletan, ekipotan, sistemetan eta programetan.
- c) Kontratuaren xede den prestazioa amaitutakoan, adjudikaziodunak datu pertsonalak dauzkaten euskarri guztiak itzuli beharko ditu, edo fitxategi guztiak ezabatu. Datuak ezabatutakoan, ez da geratu behar berreskuratzeko aukerarik batere. Fitxategiak itzuli edo ezabatu direla akta baten bidez ziurtatuko da; akta adjudikaziodunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko dute, eta, bertan itzulketaren edo ezabaketaren berri jasoko da.

48.- LANEN JABETZA.

Kontratua exekutatu bitartean egiten diren azterlan eta dokumentu guztiak, hala dagokionean, HAURRESKOLAK PARTZUERGOArenak izango dira, eta eskubidea izango du azterlanak edo dokumentuak kopiatzeko, argitaratzeko edo hedatzeko, osoak edo zatika, eta lanen egile adjudikaziodunak ezin izango du jardun hori aurkaratu.

Kontratazio-organoak berariazko baimena eman ezean, adjudikaziodunak ezin izango du inola ere erabili edo hedatu kontratua exekutatu bitartean egin den azterlanik edo dokumenturik: osorik, zatika, zuzenean, ezta zeharka ere.

Jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubide batek babestuta dauden produktuak garatzeko edo eskura jartzeko kontratuek beraiekin ekarriko dute HAURRESKOLAK PARTZUERGOAri lagapena egitea. Edonola ere, kontratazio-organoak bere esku izango du, beti, SPKL-aren 3.1. artikuluan aipatzen diren sektore publikoko ente, organismo eta entitateei dena delako produktu hori erabiltzeko baimena ematea, baita jabetza intelektualeko eskubideak lagatzeko aukera baztertzeko denean ere.

VI.- KONTRATUA AZKENTZEA

Bete edo suntsitu egiten denean amaituko da kontratua.

49.- KONTRATUA BETETZEA.

Kontratua betetzat joko da kontratistak prestazioa osorik exekutatu duenean, betiere kontratuko baldintzen arabera eta administrazioaren nahierara.

Onarpena.

Kontratua betetzat jotzeko ezinbestekoa da Administrazioak prestazioaren onarpen- edo adostasun-egintza formal eta positiboa egitea (onarpen-akta), kontratuaren xedea eman edo egiten denetik hilabetea amaitu baino lehen, baldintza-agiri honen karatulan bestela ezarri ezean.



Administrazioak uste badu prestazioa ez dela egin kontratuan ezarritakoaren arabera, antzemandako akatsak edo okerrak zuzentzeko idatzizko jarraibideak emango dizkio enpresari. Idazkian zuzenketak egiteko epea finkatuko da.

Enpresa kontratistak erreklamazioa aurkezten badu jarraibideen kontra, kontratazio-organoak ebatziko du.

Enpresak ez badu idatzizko erreklamaziorik aurkezten jarraibideen kontra, haiekin ados dagoela pentsatuko da, eta antzemandako akatsak zuzendu beharko ditu.

Prestazioa ez da onartuko, jarraibideak bete arte; onartutakoan, akta egingo da.

Akatsak ez badira ezarritako epean zuzentzen, administrazioak onarpena ezetsiko du, eta ez du ezer ordaindu beharrik izango; eta, hala balegokio, ordaindutako zenbatekoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Nolanahi ere, lanak ez badira egin kontratatutako prestazioan ezarritakoaren arabera eta errua ezin bazaio Administrazioari egotzi, kontratazio-organoak onarpena ezetsi ahal izango du, eta ez du ezer ordaindu beharrik izango; aitzitik, ordaindutako zenbatekoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Enpresa kontratistak eskubidea du kontratatutako prestazioa exekutatzeari buruz administrazioak egiten dituen oharrak ezagutzeko eta ohar horiei buruz esateko duena entzun dakion.

Kontratuaren likidazioa.

Prestazioa onartzeko akta egiten denetik hilabetea igaro baino lehen kontratuaren likidazioa egin behar da, eta enpresa kontratistari jakinarazi behar zaio, bai eta horren emaitzaren saldoa ordaindu ere, egonez gero.

50.- KONTRATUAREN LIKIDAZIOA.

Onartze edo adostasun aktaren datatik hasi eta hilabete bateko epean, kontratuaren likidazioa adostu beharko da eta honen berri eman beharko zaio kontratistari, dagokionean, azken saldoa ordainduz.

51.- AKATSAK ETA HUTSAK BERME-EPEAN.

Berme-epea karatulan ezarri da, eta prestazioa jaso edo onartzen denetik zenbatzen hasiko da.

Berme-epean egiaztatzen baldin bada lanetan badela hutsik edo akatsik, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari horiek konpon ditzan erreklamatzeko.

Kontratistak ez baditu akatsak kontratazio-organoak emandako epean zuzentzen, kontratazio-organoak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 96. artikuluan nahitaezko betearazpenerako ezarritako baliabideak erabili ahal izango ditu.

Berme-epea amaiturik administrazioak ez badu aurreko paragrafoetako eragozpenik edo salaketarik jarri, amaituko dira kontratistak prestazioarengatik zituen erantzukizunak. Horrek ez du esan nahi, ordea, kontratua obra-proiektuak egiteko baldin bazen, SPKL-aren 314 eta 315 artikuluetan akatsak konpondu beharraz eta erantzukizunaz halako kontratuetarako jartzen duena bete behar ez denik.



Kontratatutako prestazioa ondo edo gaizki exekutatu duen adierazteko egiten zaizkion oharra jakiteko eta haietaz esateko duena entzun dakion.

52.- BERMEAK ITZULTZEA ETA EZEREZTEA.

Ez da bermerik itzuli edo ezereztuko harik eta berme-epea amaitu eta dena delako kontratua behar bezala bete arte, edo kontratistaren errurik gabe kontratua suntsiarazi arte.

Kontratuaren likidazioa onartu ondoren eta ezarritako berme-epea amaitu eta gero, bermearen kontra exekutatu behar den erantzukizunik agertzen ez bada, itzuli egingo da eratutako bermea, edo ezereztu egingo da abala.

Kontratua laga bada, lagatzaileak jarritako bermea ez da itzuliko, ezta ezereztuko ere, harik eta lagapen-hartzaileak berea formalki eratu arte.

53.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.

Kontratua ez betetzeko kausekin batera, kontratua suntsiarazi, eta amaitutzat joko da baldintza-agiri honen karatulan zehaztu diren kausengatik eta honako kausa hauek gertatzen direnean:

- a) Kontratista pertsona partikularra bada, haren heriotza edo desgaitasuna; eta kontratista sozietatea bada, nortasun juridikoa azkentzea, SPKL-aren 98. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.
- b) Beste edozein prozeduratan, konkurtsoaren deklarazioa edo kaudimengabezia deklarazioa.
- c) Administrazioak eta kontratistak, ados jarrita, hori erabakitzea.
- d) Kontratistak epeak ez betetzea.
- e) Administrazioa ordainketa egiten berandutzea, SPKL-aren 198. artikuluan 6. paragrafoan ezarritako epea edo 8. zenbakiaren babespean zehaztutako epe txikiagoa gaindituta.
- f) Kontratuaren betebeharrak nagusia ez betetzea.
- g) Prestazioa hasieran hitzartutako baldintzetan exekutatzeko ezintasuna, 204 eta 205 artikuluen arabera kontratua aldatzea posible ez denean; edota 205. artikuluan ezarritako baldintzak eman arren, aldaketek, banaka edo batera, kontratuaren hasierako prezioan ehuneko 20a baino gehiagoko edo gutxiagoko aldakuntza badakar, BEZ kanpo.
- h) Lege honetan kontratuaren maila bakoitzerako espezifikoki zehazten direnak.
- i) Kontratuaren exekuzioan zehar, kontratistak kontratuan bertan lanean ari diren langileei ez ordaintzea, edota, baita kontratuaren exekuzioan zehar, langile hauentzat indarrean dauden Hitzarmen Kolektiboetan ezarritako baldintzen ez-betetzea.

Kontratua suntsiarazteko kausei eta beraien ondorioei dagokienez, SPKL-aren 211., 212., eta 313. artikuluetan ezarritakoa beteko da.

54.- KONTRATUAK LAGATZEA.

Kontratistak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak, baldin eta:

- A) lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak izan ez badira,
- B) lagapenak ez badu merkatuko lehia benetan murrizten,
- C) lagapenak kontratistaren ezaugarriak funtsean aldatzen ez baditu, baldin eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementu badira, eta
- D) lagapena spklren 214.2 artikuluan jasotako betekizunen eta eskakizunen arabera egiten bada.



55.- AZPIKONTRATATZEA.

Kontratistak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du prestazioaren zati bat. Nolanahi ere, azpikontratazio horrek Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

VII. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK, ERREKURTSOAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

56.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK.

Kontratazio-organoak du administrazio-kontratuak interpretatzeko eta haiek betetzean sortzen diren zalantzak ebazteko prerrogatiba. Halaber, interes publikoko arrazoiengatik kontratuak aldarazi, horiek suntsiaraztea eta horrek izango dituen ondorioak zehaztea erabaki ahalko du, betiere, indarreko legeetan adierazitako betekizunei eta eraginei helduz.

Kontratazio-organoak interpretaziorako, aldarazpenerako eta ebazpenerako prerrogatibak erabilia hartutako erabakiak berehala exekutatzekoak izango dira.

57.- KONTRATAZIO-ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA.

Kontratazio-arloko errekurtsu berezia jartzea onartzen duten kontratuetan, auzi-errekurtsua ezarri aurretiko errekurtsu administratibo berezia ezarri ahalko zaie SPKL-aren 44. artikuluan zerrendatutako egintzei.

Errekurtsu administratibo berezia hautazkoa izango da, eta errekurtsu hori aurkezteko 15 egun baliouduneko epea emango da, SPKL-aren 50. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

Errekurtsuaren idazkia kontratazio-organoaren erregistroan edo errekurtsua ebazteko erakunde eskudunean aurkeztu beharko da, nahitaez (Kontratuen inguruko Errekurtsuen Administrazio-organoaren Erregistroa, Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Edonola ere, errekurtsua aurkeztu nahi duen edonork alde aurretik iragarri beharko du; zehazki, errekurtsua aurkezteko epe berean. Horretarako, idazkia aurkeztu beharko du kontratazio-organoan (HAURRESKOLAK PARTZUERGOKo Zuzendaritza Batzordea, Otaola etorbidea 29, Jaizkibel Eraikina, 20600 Eibar). Horrez gain, errekurtsuaren xedea izango den prozeduraren egintza zehaztu beharko du.

Errekurtsua aurkezteko idazkian honako hauek jaso beharko dira: errekurrituko den egintza, errekurtsuaren oinarritzko zioa eta errekurtsu-egileak erabiliko dituen frogabideak; eta, hala dagokionean, hartzeko eskatzen diren neurriak, SPKL-aren 49. artikuluan zehazten diren neurriak bezalakoak direnean.

Idazkiarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Prozedurara agertutako alderdiaren ordezkariak egiaztatzen duen dokumentua, non eta organo berean ebazteko dagoen beste errekurtsu batean aurkeztu ez bada. Kasu horretan, ziurtagiria eskatu ahal izango da, prozedurarekin batzeko.
- b) Eragilearen legitimazioa ziurtatzen duen dokumentua (bat edo batzuk), legitimazioa beste batek oinordetzaren bidez edo beste titulu baten bidez besterendu badio.



- c) Berariaz errekurritu nahi den egintzaren kopia edo helarazpena. Horrez gain, zer espedientetan dagoen, edo zer egunkari ofizialetan edo kontratatzaile-profiletan argitaratu den zehaztu beharko da.
- d) Beraren eskubidea zer dokumentutan oinarritzen den.
- e) Justifikatzaileak alde aurretik iragarri behar izan du errekurtsorearen aurkezpena.

58.- BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA.

Beren aurka errekurtsu berezia aurkeztea onartzen ez duten administrazio-kontratuen prozeduretan egintzak ematen baldin badira, egintza horien aurka berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko da, eta hilabeteko epea egongo da horretarako, ebazpena eman eta hurrengo egunetik zenbatuta. Horretan, honako lege hauek bete beharko dira: urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.

59. JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Kontratu honetatik erator daitezkeen arazo eztabaidagarriak Kontratazio Organoak ebatziko ditu. Organo horren erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60.era bitartean araututako kontratazio-arloko errekurtsu berezia edo 39/2015 Legean araututako edozein. Urriaren 1a, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena.